




Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

-


“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” - 2009

Azpi-egitasmoak:

- “Esadazu euskaraz” / “Eskolako lanak euskeraz” kanpainak
- Familien arteko lehiaketa.
- “Euskaraz oparitu”
- “Apelliduak abizendu”



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- AZPI-EGITASMOAK

3.1.- “Esadazu euskeraz” kanpaina (Alkarbide)

- 3.1.1.- Oinarriak
- 3.1.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.1.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.1.4.- Aurrekontua

3.2.- “Familien arteko lehiaketa erraldoia-2008”

- 3.2.1.- Oinarriak
- 3.2.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.2.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.2.4.- Aurrekontua

3.3.- “Euskeraz oparitu” kanpaina.

- 3.3.1.- Oinarriak
- 3.3.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.3.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.3.4.- Aurrekontua

3.4.- “Apelliduak abizendu”


- 3.3.1.- Oinarriak
- 3.3.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.3.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.3.4.- Aurrekontua

4. KRONOGRAMA

5.- AURREKONTUA GUZTIRA



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

1.-SARRERA


Egitasmo orokor bat dugu “Familiabidezko jarraipena” dinamizazio proiektua eta horren barruan txertatzen ditugu zenbait azpiegitasmo. Iazkoan bat gehiago lotu genuen (“Aita, ama, etxerako lanak neuk egin behar ditut!” kanpaina) eta, horiez gain, 2009rako beste bat gehiago dakargu (“Apelliduak abizendu”). Hona hemen azpi-egitasmo guztien zerrenda:

- “Esadazu euskeraz!” kanpaina (Alkarbideren bitartez eratu eta koordinatzen dena, bi atal izaten dituen: 0-1 urte bitartekoena eta 1-6 urte bitartekoena) eta “Aita, ama, etxerako lanak neuk egin behar ditut!” kanpaina (6-12 urte bitarteko gurasoei begirakoa, 2008an burututakoa eta errepikatzeko eskatu digutena).
- Familien arteko lehiaketa erraldoia (3-6 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei begirakoa).
- Euskaraz oparitu, hau ere Alkarbide-ren bitartez antolatu eta koordinatzen dena (LH eta DBHko ikasleei zuzendutakoa).
- “Apelliduak abizendu” kanpaina, beste udalerri batzuetan burutu izan denaren parekoa.

Gure udalerriko Plan Estrategikoa 2003an onartu zenetik abian daukagun egitasmo orokorra dugu, urteak pasatu ahala azpi-egitasmo desberdinekin jantzi izan duguna eta 2009-2012 eperako Plan Estrategikoaren magalean darrai.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

2.- HELBURUAK

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” deituriko proiektu hau, aipatu lau azpi-egitasmoekin osatzen dena, 2009-2012 epean indarrean egongo den Plan Estrategikoan aintzat harturiko neurri eta ekintzekin bat dator.

Egitasmo orokor honekin, 2009ko Kudeaketa Planean txertatutako zenbait helburu, neurri eta ekintza bete nahi dira:

Helburu estrategikoa

1 - Euskara ondorengoetaratzea

Esparrua

1.c - Familia


Neurria

1.c.01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurraren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak, ...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.

Ekintza
1.c.01/004 - Merkatuan dauden euskarazko produktuen zabalkundea egin (“Euskaraz oparitu” kanpaina).
1.c.01/005 - Udalak antolatzen dituen guraso eskoletan, euskararen tratamenduari buruzko jarraipena egin (“Aita, ama, etxerako lanak neuk egin behar ditut kanpaina!”).
1.c.01/5 - Haurrak izango dituzten bikoteei behar dituzten zerbitzuak eskaini (haurra izan aurreko ikastaroak, dokumentazioa,...)



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.c.01/7 - Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak (familien arteko lehiaketa).

1.c.01/12 - Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuak,...). "Esadazu euskaraz kanpaina"

Neurria 1.c.002 - Familia bere osotasunean partaide izanik egitarauak areagotzeko instituzio eta gizarte eragileen konpromisoak finkatu.

Ekintza

1.c.002/001 - Hitzarmenak sinatu instituzioak eta gizarte eragile desberdinekin, urtean zehar familia osoari begirako ekintzak garatzeko (Urdaibai Rugby Eskolarekin hitzarmena, "Familien arteko lehiaketa erraldoia" burutzeko).

"Apelliduak abizendu" kanpainak izaera orokorra duen arren, azpi-egitasmo guztietan txertatzeko aukerari eutsiko diogu. Beraz, arestian azaldutako neurri eta ekintza guztiekin lotura izango duen kanpaina dugu.


Esparrua

1.b - Euskalduntze-alfabetatzea

Neurria 1.b.01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria


UNESCO Saria
2002 - 2003

Ekintza
1.b.01/1 - Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu
1.b.01/001 - Berbalagun proiektua Gernika-Lumon, mintzapraktirako aukerak eskaini eta euskararen erabilera kalean indartzekoa.
1.b.01/005 - Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko araudia eraberritu eta egungo beharrianetara egokitu

Gurasoentzat ikastaro bereziak antolatzen dira 1.b.01/1 ekintzari jarraiki eta Berbalagun egitasmoarekiko loturak ere lantzen dira Guraso Elkarteeekin. Diru laguntzei dagokienean, gurasoei ere zabalkunde berezia egiten zaie.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

3- AZPI-EGITASMOAK

3.1.- “ESADAZU EUSKERAZ” / ESKOLAKO LANAK...” KANPAINAK

“Esadazu euskeraz” kanpainari beste bat lotu diogu, “Aita, ama, eskolako lanak neuk egin behar ditut!” deituriko kanpaina, 2008 urtean zehar horren berri izan eta burutzea interesgarri jo izan genuena eta 2009an ere errepikatzea erabaki duguna.


3.1.1.- OINARRIAK

- “Esadazu euskeraz” kanpaina ekainean (bi atal: 0-1 urte bitartekoena eta 1-6 urte bitartekoena).
- “Aita, ama, eskolako lanak neuk egin behar ditut!” kanpaina (irakasleentzat eta gurasoentzat hitzaldi bereziak), urrian burutzekoa.
- Materiala: “Esadazu euskeraz” kanpainarako, gutuna, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, oparia, kantu bilduma, ku-ku liburuxka; “eskolako lanak...” kanpainarako, liburuxka eta hitzaldiak.
- Gurasoei begirako euskarazko klaseak (udal euskaltegia eta AEK euskaltegiarekin elkarlanean).

Egitasmoa garatu ahala, datuen babespenari buruzko legearekin egin dugu topo eta, horrek eraginda, Gernika-Lumoko Anbulatoriarekin elkarlana planteatzeari eutsi diogu. Pediatria eta emaginaren zerbitzuekin adostu dugu material banaketa egitea (hiru kit prestatuko ditugu, umearen adinaren eta gurasoen gaitasunaren arabera).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

3.1.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:


- Euskara Zerbitzua.
- Alkarbide (Euskara Zerbitzuen bilgunea) eta lan-mahai desberdinak.
- Udal Eskola Kontseilua eta guraso elkarteak.
- Udal euskaltegia eta AEK euskaltegia (gurasoentzat eskainitako klaseak).
- Anbulatorioko pediatria eta emaginaren zerbitzuak.

- Baliabideak:

- Diru iturriak Euskara Zerbitzuarenak.
- Giza baliabideak: Euskara Zerbitzuarenak (HNT1). Alkarbideko lan-mahaiko teknikaria, pediatriako erizainak (2), gurasoentzako hizlaria (Iñaki Eizmendi), eskoletako euskara arduradunak, euskaltegietako irakasleak (ikastaro bereziak).
- Erabiliko diren euskarri nagusiak, materiala:
 - Alkatearen gutuna.
 - Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua.
 - Gurasoen ikastaldeak eratzeko fitxak.
 - Lo-kantuak- Txikia izanik.
 - Adur-zapia.
 - “Ku-Ku” jaioberrien berberearen hiztegitxo.
 - “Aita, ama, eskolako lanak neuk egin behar ditut!” kanpainako liburuxka.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

3.1.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERALEAK

Xede taldea :

- 0-6 urte bitarteko umeak (1.053) eta gurasoak (2.100), “Esadazu euskeraz” kanpainaren eraginpean.
- 6-12 urte bitarteko umeak eta gurasoak ditu xede “Aita, ama eskolako lanak neuk egin behar ditut: 900 bat ume eta 1.800 guraso inguru (hauexek dira euskara ikastaro bereziak jasoko dituztenak ere, LHko haurren gurasoak).

Adierazleak::

- Sentsibilizazio kanpaina dugu eta etxe barrurako eragina duen jakitea ezinezkoa zaigu une berean. Ama-hizkuntza eta etxeke hizkuntzari buruzko neurketen emaitzei jarraipena egiten diegu.
- Euskarazko klaseei dagokienean, klaseetan parte hartu dutenen kopuruak.


Ama-hizkuntza euskara (%)

UDALERRIA	1986	1991	1996	2001	Aldea
Gernika-Lumo	60,8	60,6	60,7	59,80	-1
Bermeo	71,3	71,5	70,2	67,00	-4,3
Mungia	56,8	54,7	48,9	44,14	-12,66
EUSK. AUT. ELK.		20,6	20,6	18,80	-1,8

Iturria: Eustat




Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Etxean euskaraz bakarrik egiten duten euskaldunak (%)




Iturria (Eustat)

3.1.4.- AURREKONTUA

Esadazu euskeraz kanpainako materiala (Alkarbide)	1.800
0-6 urte bitartekoentzat	
Ku-ku liburuxka	1.000
Ku-Ku CDa	800
Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua	400
Banaketa lanak	400
EBETE (Iñaki Eizmendi) hitzaldiak	1.500
Gurasoei euskarazko ikastaro bereziak	2.400
	8.300



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

3-2 FAMILIEN ARTEKO LEHIAKETA ERRALDOI A (“EUSKERA OLGETAN ERROTU)

3.2.1.- OINARRIAK

- Jarduera nagusiak:
 - Lehiaketa formatoa duen egitasmoa dugu.
 - Guraso euskaldunak eta erdi-euskaldunak beraien seme-alabekin bikoteka lehian aritzea, froga desberdinak bitarteko: euskal jokoak, txisteak, bertsoak, abestiak, galderak, mimika. Puntuak pilatuz, sariak lortzen dira.
 - 3 ekitaldi izango dira: azaroan bi eta abenduan beste bat (azken saioa, sari-banaketa eta jaialdi nagusia).

3.2.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- URE Elkarteak Udalaren laguntzarekin lehiaketa antolatzeko arduraduna izango da. (Hitzarmena): 10 monitore arduratzen dira garapenaz.
- Diru iturriak (Euskara Zerbitzua). Kanpaina hau burutzeko Euskara Arloko aurrekontuan 8.700 €ko gastua aurreikusiko da (hitzarmenean aintzat hartutako konpromiso ekonomikoa).


3.2.4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

- Familien lehiaketa erraldoia antolatzeko, 3-6 urte bitarteko haurren etxeetara (600 bat) bidaliko da informazioa (eskutitza, bi orrikoa, izena emateko fitxa) eta jarraipena egiteko, egun



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

bakoitzako ebaluazio-fitxa bat beteko da (partaide diren familien kopurua, adina, ekintzaren eta ordutegiaren egokitasuna ...).

- Gurasoen xede taldea umeen bikoitza (1.200) izango da gutxi gora-behera. Ezinbesteko baldintza izango da gurasoa eta umea batera aritzea.

Adierazleak:


- Parte hartuko duten ume eta gurasoen kopuruak eta landutako unibertsoarekiko portzentajea.
- Egun bakoitzean parte hartuko duen ume eta gurasoen kopuruen arabera, hizkuntza erabilera neurtzeko erabiltzen diren euskaldunen dentsitate eta abarretako irizpideei jarraiki, euskararen erabilera esparru ez-formaletan areagotzeko baldintza egokiak finkatu diren neurtu.
- Eustatek ateratzen dituen datuetatik, ama-hizkuntza eta etxeke hizkuntzaren erabilerari buruzko portzentajeen bilakaera kontrolatzea.

3.2.4.- AURREKONTUA

URE hitzarmena (antolaketa, monitoreak)	2.750
Materiala	2.850
Publizitatea (izenak emateko orria, zabalkundea)	900
Sariak	2.200
	8.700



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

3.3.- “EUSKARAZ OPARITU” KANPAINA

3.3.1.- OINARRIAK

- Euskarazko produktuen katalogoaren 2500 ale banatzea, Alkatearen eskutitzarekin (abenduauren bigarren astean).
- Jostailu denda guztietan kanpaina berezia burutu (urrian eta azaroan): katalogoak eta kartelak banatu, bakoitzean erabiltzen den produktu zerrendari jarraipena egin, salmentarako fitxa prestatu eta jarraipena egin.

3.3.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:


- Euskara Zerbitzua (egitasmoaren koordinazioa).
- Alkarbide (materiala eratu).
- Ikastetxeak.
- Jostailu dendak.

- Baliabideak:

- Euskara Zerbitzuak diruzkoak eta koordinaziorako giza-baliabideak (HNT1).
- Alkarbideko teknikariak.
- Ikastetxeetako zuzendariak (koordinaziorako bilkuretan parte hartuz).



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

3.3.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

- “Euskaraz oparitu”, Lehen hezkuntzako umeak bitarteko (2.000 ikasle), gurasoek (4.000) etxean jasoko dute materiala. Xedetaldearen %100era iritsiko da materiala.
- Jostailu dendariei begirako kanpaina: guztira 8 bat denda txiki eta handi.

Adierazleak:


- Materiala jaso duen ume kopurua xede taldearekin erkatuta.
- Sentsibilizazio kanpaina dugu eta bere eragina neurtzeko tresnak baliatzea oso zaila da. Dendariekin elkarlanean kanpainaren jarraipen zehatza egiteko adierazleak landu beharra dugunez, fitxa berezi batzuk prestatuko dira horretarako eta horietatik aterako diren datuetatik aterako ditugu ondorioak.

3.3.4.- AURREKONTUA

Eusk. Prod. Katalogoak, gutunak eta kartelak	1.600
Dendariei begirako kanpaina	1.000
Guztira gastuak	2.600



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

3.4.- “APELLIDUAK ABIZENDU”

3.4.1.- OINARRIAK

- Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina dugu. Bi orrikoa banatuko da (5.000 ale).
- Zabalkunde berezia egingo da eskualde mailako komunikadeetan (Oiz-mendi telebista, Hitza, Bagabiz, Aldaba).

3.4.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:
 - Euskara Zerbitzua (egitasmoaren koordinazioa).
 - Eskualde mailako komunikabideak (zabalkunderako).
- Baliabideak:
 - Euskara Zerbitzuak diruzkoak eta antolaketarakoak: HNT1 eta euskara dinamizatzailea.
 - Komunikabideetako arduradunak.

3.4.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:


- Udalerriko biztanleria osoa, familia bitarteko.

Adierazleak:

- Materiala jasoko duen biztanle kopurua.
- Jasotako informazio eskaerak.
- Erregistro zibilean izandako eskaera kopurua.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

3.4.4.- AURREKONTUA


Bi orrikoa (5000 ale)	1.100
Komunikabideetan hedatzea	1.200
Guztira gastuak	2.300

4.- KRONOGRAMA

“Esadazu euskaraz” / “Eskolako lanak...”	Urt.	Ots.	Mar	Api.	Maia	Ek.	Uzt.	Ir.	Ur.	Az	Ab
Material berria egokitu											
Euskarazko klaseak											
Bidalketa											
Anbulatorioa (banaketa)											
Jarraipena (eragileen batzarrak)											
Eskola lanak... zabalk...											
I. Eizmendi (hitzaldiak)											
Lehiaketa											
UREkin batzarrak											
Triptikoa											
Aurkezpena											
Zabalkundea											
Inskripzioa											
Ekitaldiak											
Euskeraz oparitu											
Eskaera (Alkarbide)											
Materiala egokitu											
Kanpainaren zabalkundea											
Dendariei begirako kanpaina											
Katalogo banaketa											
Apelliduak abizendu											
Bi orrikoa prestatu											
Zabalkundea											
Aholkularitza eskaintza											



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

4.- AURREKONTUA GUZTIRA

“Esadazu euskeraz”/”Eskolako lanak” kanpainak	8.300
Jaioberrien gurasoei zuzendutako kanpaina	2.600
Familien arteko lehiaketa	8.700
Apelliduak abizendu	2.300
Gastuak guztira	21.900

Gernika-Lumon, 2009ko urtarrilean.

Idoia Fernández Antia
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Euskara Teknikaria I